I.K.A.

Antoni Cuadrench / Carme Peris

# Igel azkarra



Sirena bilduma

Sirena bilduma

# Igel azkarra



Egilea: Antoni Cuadrench
bizkaieraz: Bibiñe Pujana
marrazkiak: Carme Peris

I. K. A. Ibaizabal
Zornotza



Baegoan igel azkar bat,
urmael baten bizi zana.



Beti toki bardinean egoten aspertuta, esan eban:

—Nahiko da, aspertu naz urputzu honetan. Dana dakit: Euria egingo dauan... eguzkia agertuko dan... auzoko andreak erropak noiz garbituko dauzan...







Igela, maletak egin,
eta saltoka ta jauzika
Iparralderantz joan zan.







Ze ederto egoten dan hemen! -esan eban nahi eban tokira heldu zanean-. Ez dago euria baino gauza ederragorik osasunerako, airea garbitu egiten dau eta nire narrua preskatu. Orain bai pozik biziko nazela!





Hainbat egun ilun eta euritsu
igaro ondoren igela bere
urmaeleko eguzkiagaz
ametsetan hasi zan;
eta aterkina erosi behar
izan eban.



Eta azkenean, eguraldi
txarragaz aspertuta, esan eban:
– Eta, hegoalderantz joango
banintz? Hango eguzkiak
berotu egiten ei dau,
honek ez ostera...
Maletak egin eta jauzika
eta jauzika hegoalderantz
joan zan.







Hau da eguzkia! -esan eban pozarren hegoaldera heldu zanean-.
Eguzkia asko gustatzen jat...
Hau da bizimodua!
Narrua baltzituko jat eta osasuntsu izango naz.





Baina, igela laster konturatu zan eguzki harek eta euririk ezak narrua lehortu eta itsusitu egiten ebala.

— Eguzkitakoa eta betaurrekoak erosi beharko dodaz.





Erosi bakarrik ez, erosi eta ipini, baina igel koitadua, aste gitxi barru aspertuta egoan hainbeste bero eta sikitegaz.

Maleta barriro egin eta jauzika eta brinkoka bere etxera joan zan.



Helduagaz batera esan eban:

– Urmael politagorik ez dago munduan! Hemen eukiko dot eguzki apur bat. Hemen eukiko dot euri apur bat.







Eta denporea pasatzeko
etxea margotzen hasi zan.
Iparraldeko kolorez,
Hego-aldeko kolorez
laster ipini eban
itxura dotorez.



Kataluniar jatorrizko izenburua:
La granota eixerida

© Antoni Cuadrench, 1.989, testua.
© Carme Peris, 1.989, marrazkiak.
© La Galera, S.A. Editorial, 1.989
© Euskaraz: Elkar, S.A. 1.989
Eskuiskribatzaile: Joxemari Telleria
Lege gordailua: B. 28. 862/1.989
I.S.B.N. 84-7529-716-1

Elkar. S.A. Argitaletxea
Esterlines 10-2º, 20003 Donostia
Tf.: 426319
Inprimatzaile: Indice, I.G.
Fluvià, 81-08019 Barcelona

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Turismo Sailaren
laguntza jaso du.

I.K.A.

1. Ahotsik bako aita
2. Trena eta ilargia
3. Hodei tripaundia
4. Deabruaren zubia
5. Semaforoa
6. Azeria eta arrainsaltzailea
7. Musar asmatzailea
8. Urlainoa poltsikoetan
9. Igel azkarra
10. Andere erraldoia eta bela baltza
11. Martarentzat eskutitza
12. Hatzamarrak, banan-banan, hamar

Sirena bilduma

ISBN 84-7529-716-1

9 788475 297163